

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1803

690/2015 EBAZPENA, martxoaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Iñigo Azumendi Ruiz de Arechavaleta jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariordearen lanposturako izendatzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdia 2015eko otsailaren 9ko EHAA n argitaratu zen (26. zenbakia), Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 9ko 31/2015 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Iñigo Azumendi Ruiz de Arechavaleta jauna deialdiko lanposturako proposa dela, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Iñigo Azumendi Ruiz de Arechavaleta jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariorde.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.